

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, helbide elektronikoa eskugarri egongo da edozein bezeroarentzako, bertan arazo eta kezka argitu ahalko dira. Saiatzen gara lehenbailen erantzuten. Helbide elektronikoa honako hau izango da; nimmo@gmail.com



Bestalde, gure web orrialdean ere, informazio orokorra egongo da bilduta. Gainera, bezeroek haien galderak besteekin partekatu eta bertan erantzungo ditugu denok ikusgarri izan ahal izateko eta honela norbaitek arazo bera edukiko balu, azalpen horiekin konponbide ugariak edukiko lituzkete.

Gure web orrialdean eta korreoan zalantzak argitzez gain, gure Instagramen bidez ere kontsumitzaileei edota bezeroei laguntzeko prest egongo gara. Gure kontua [nimmo_pultsera](https://www.instagram.com/nimmo_pultsera) izenarekin aukituko duzute.

Arazoak egongo balira, bezeroak, gmail edo Instagram bidez kontaktuan jarri daitezke , gainera, astero igandetan oarsoaldeako leku desberdinetan postu bat jarriko dugu, gure produktuaren hainbat adibideekin. Nola den ikusteko eta bezeroen bat gerturatu nahi izanez gero prest egongo gara produktua aurkezteko. Hauen ordutegia igandetan 9:30etatik 12:00 izango da eta leku zehatza gure instagramen bidez zehaztuko dugu bi egun lehenago.



Gure helburu nagusia bezeroarekiko harreman eroso eta zuzena edukitzea da. Horretarako, deskontuak eskainiko ditugu, gure produktua erakarri eta produktua erosten jarraitzeko beharra sortuko duena. Horrekin batera, produktua arrakasta

izanez gero, propaganda hoberena bezeroen artean egotea lortuko dugu eta horrek eskualde gehiagotara zabaltzea ahalbidetuko du.

Deskontuaz hitz egiten badugu, zure lagun batek gure produktua erosten badu zuk errekomentatuta %10 deskontua izango du eta gainera zuri ere deskontu bera egingo zaizu hurrengo erosketan.



Bezeroen iritziak app-ren bidez jasoko ditugu. App-ak noizean behin inkestak egingo ditu eta honen bitartez hobekuntzak egiteko behar dugun informazioa bilduko da.

Edozein zalantza edo iradokizunetarako gure webgunean zein gure aplikazioan egongo den gmaila ere izango dute gure bezeroak. Gmail honek erantzun automatiko bat izango du galdera ohikoenetarako. Aldiz, galdera zehatzagoak geuk erantzungo ditugu.